

“ZIENTZIA ETA MAGIA” IKUSKIZUNAREN ERRUBRIKA

Ikaslearen izena: _____

ARLOAK	4	3	2	1
Posterraren azalpena / demostrazio experimentalak				
Ahozko adierazpena	Behar bezala ahoskatzen du eta intonazio egokia du. Bolumena eta abiadura egokiak dira egoerarako.	Behar bezala ahoskatzen du, baina intonazioa ez da egokia. Ez du bolumena kontrolatzen	Ahoskera-akatsak ditu, baina intonazioa egokia da. Azalpenak ematerakoan baxuegi hitz egiten du.	Ahoskera- nahiz intonazio-akatsak egiten ditu. Bolumena eta erritmoa (abiadura) ez ditu kontrolatzen
Gorputz-adierazpena	Jarrera naturala du, eta ikus-entzuleei begira hitz egiten du. Segurtasuna duela igartzen zaio	Ikus-entzuleei begiratzen die, baina zerbaiten kontra jartzen da edo etengabe mugitzen.	Zenbaitetan, bizkarra ematen die ikus-entzuleei eta ez du segurtasunik adierazten.	Azalpenak ematen dituenean, ez da ikus-entzuleengana zuzentzen. Urduritasuna edo segurtasun eza nabari zaio.
Argiari buruzko funtsezko ideien azalpena	Egitura eta azalpenaren sekuentziario ona egiten du. Eduki zehatza azaltzen du eta ideia garrantzitsuenak nabarmentzen. Hiztegi zabala eta terminologia zehatza erabiltzen ditu.	Azalpen nahikoa ordenatua egiten du. Edukia azaltzen du, baina datu garrantzitsuren bat falta zaio edo ez du berriazko hiztegia erabiltzen.	Ideen ordena logikoan, zenbait akats edo errepikapen egiten ditu. Azaltzen du edukia, baina zenbait datu falta zaizkio. Hiztegi eskasa eta terminologia ez egokia erabiltzen ditu.	Azalpenak ez du ordenarik eta ideiak etengabe errepikatzen ditu. Ideia garrantzitsuak ez ditu argi azaltzen eta ez du terminologia egokia erabiltzen.
Magia-trukoa				
Girotea eta jantziak	Jantziak eta girotea egokiak dira ikuskizunerako. Magia-giro egokia lortzen da.	Jantziak eta girotea zuzenak dira ikuskizunerako.	Jantziak egokiak dira, baina girotea ez da zaindu.	Jantziak eta girotea ez dira egokiak magia-ikuskizunerako
Emanaldia	Elkarrizketak eta aurkezten diren ekintzak originalak eta txundigarriak dira. Trukoa zehaztasunez egiten da. Ikus-entzuleekin elkarrekintzan aritzea errazten du.	Ikuskizunera egokitzen dira elkarrizketak eta aurkezten diren ekintzak. Trukoa ondo egiten da. Ikus-entzuleekin elkarrekintzan aritzeko saiakeraren bat egiten da.	Ikuskizunera egokitzen dira elkarrizketak eta aurkezten diren ekintzak. Trukoa egiterakoan, akatsak egiten dira. Elkarrizketak eta aurkezten diren ekintzak ez dira ikuskizunera egokitzen. Trukoa egiterakoan, akatsak egiten dira.	Elkarrizketak eta aurkezten diren ekintzak ez dira ikuskizunera egokitzen. Trukoa egiterakoan, akatsak egiten dira.

